

*“No basta levantar al débil, hay que sostenerlo después”.*

*William Shakespeare (1564-1616).*

Demagun astelehen eguerdia dela Donostian, ekaineko bero sargoria nabarmen udatiarren galtzarbeetan eta taberna gehienetan lekurik ez. Demagun horrelako egun bat aukeratu duela Garbiñek egunkariak dakarren iragarkiaz interesaturik bere izena eskaintzan emateko:

*“(…)Donostiako Bide Berria Elkarteak boluntarioak behar ditu uda denboraldirako (…)”.*

Artega, azukrerik gabeko bi goxoki barruratu ditu, heldugabeko sagar mikatzen zapore berekoak. Batzuetan, bere burua ere heldugabetzat jotzen du Garbiñek, berrogei urte pasatxo izanagatik, abentura gustuko baino gustukoagoa baitu. Zorionez, horrek ematen dio bizipozik handiena; tarteka eta lotsagabeki, bere desioak betetzeak, inori baimenik eskatu gabe, inork Garbiñeri konturik eskatu gabe.

Amak beti esana zion soldatarik gabeko lanak negozio txarrak zirela, baina Garbiñek jateko lain izanez gero, aski izaten zuen, horregatik zen herriko elkarte gehienetako kide eta langile isila; horregatik edozein elkartek bere baitan nahiko lukeen txinparta. Txinparta guztiek distira kentzen dioten alde iluna ere baduten arren...

*“(…)ekainaren 1etik abuztuaren 30a arte, arratsaldeko 18:00etatik 19:00ak arte. Izen ematea Bide Berriak Urbieta kaleko 42. zenbakian duen egoitzan. Martinaz galdetu (…)”.*

Erakargarria oso. Goizean etxeko lanak egiteko nahikoa asti eta arratsaldeetan besteri laguntzeko aukera aproposa. Behaztoparik ez bidean, ñabardura txiki bat salbu: Oscar. Agian ez litzaioke gaizki irudituko eta animatu egingo luke baldin eta Garbiñek haurraren kontua gainditzeko on egingo liokeela sinistaraziko balio. Are gehiago, agian bera ere animatu egingo litzateke parte hartzera, Oscar beti izan baita boluntario lanetarako oso prestua, nobioak

zirela Gurutze Gorrikoei laguntzen zienean, kasu. Tamalez, Garbiñek ez zuen senarra uste bezain ondo ezagutzen; ez senarra eta ezta senarraren bihotzean zegoen oinaze zurrumbiloa ere, zazpi urte lehenago gertatutakoagatik.

*-Boluntario? Oraingoan ere ze hasi behar duzu, besteren bizitzan muturra sartzeko? Daukagunarekin ez al dugu aski, Garbiñe?*

Eta hain justu aski eta sobera zuelako nahi zuen Garbiñek bide berriari ekin. Saminetik gehiegi zutelako etxeko lau paretan. Malko artetik atera nahi zuelako eta bere erruz gertatutakoa nolabait ahantzi. Hala ere, Oscarren purrusta eta hoztasunak ez zuen harritzen beste behin ere, nahiz eta oso argi zuen ez ziola kasurik egingo, eta Martinagana joko zuelako izen ematera. Martina, izen polita...

*-Zeu al zara Martina?—ahots dardartiz, hanka sartzeko beldur denaren lotsaz*

*-Bai, neu nauzu Martina Garmendia, eta zu?*

Handik aurrerakoa emakume arteko solas entretenigarria izan zen. Biak 71ko kintakoak zirela, Martina Garbiñeren gaztetako koadrilako Irene Intxaustiren lehengusina zela, biak nahiko gazte ezkondu zirela bi donostiarrekin eta tankerako hamaika kontu. Ohiko elkarrizketa hutsala, Martinak bi seme zituela azaldu zion arte, orduan Garbiñe hitzik kanporatu ezinik geratu baitzen. Martinak berehalakoan antzeman zion bazuela nonbait sendatu gabeko zauriren bat bihotzean, eta orbaindu gabeko ebaki hartan mina sortzen jarraitu beharrean, hizketagaita aldatzeari iritzi zion egokien.

*-Baina kontadazu, zerk ekarri zaitu hona...*

Orduan Garbiñeren begitartea guztiz aldatu zen, ekaitzaren ondorengo eguzki printzek zelaia berdatzen duten moduan, eta berriz ere hizketarako gogoia eta Martinaganako

konfiantza berreskuratu zituen. Halaxe, boluntario lana txikitatik gustuko zuela azaldu zion eta eskarmentu faltarik ez zuela besteri laguntzen, batez ere behar gehien zutenei. Denboraldi batez dena alde batera utzi eta munduarekin haserretu zela ere aitortu zion, boluntariotza utzi behar izateraino. Bizitzak ekarri zion nahiagabe batengatik, ez haatik bere borondatez. Azken boladan, ordea, boluntario lanari berriz ekin ziola azaldu zion, bere mesedetan eta laguntza behar zuen jende asko ezagutzen zuelako inguruan.

Martinak, adi-adi eta elkarrizketaren haririk galdu gabe, Garbiñe laguntzaile aproposa izan zitekeela pentsatu zuen eta *“egun gutxi barru deituko dizugu erantzunaren berri emateko”* esanez agurtu zuen Garbiñe, egun batzuen buruan jasoko zuen deiaren arrasto bakar bat ere emateke. Garbiñeren partehartzea oso lagungarri gerta zitekeelakoan zegoen, eta Garbiñeri berari ere mesede egingo liokeelako susmoa zuen, Martinak inoiz Garbiñeren barrunbeetan murgiltzerik lortzen bazuen, behinik behin. Bazen haren begietan eta hitzetan misterio apur bat, arakatzeari merezi zuen ezkutuko eremu bat; lanbro arteko argi errainu ahula.

Urbietan kalea utzi eta etxeratu aurretik, dendak ikusten jardun zen, udako denboraldiko arroparik gabe dagoenaren inpazientziak. Oscarrek trapuetan diru gehiegi xahutzen zuela aurpegiatzen zion sarri, baina berak senarraren esanei entzungor egiten zien. Beharko, lasai biziko bazen. Zenbatetan pasiatu ote zen haurrarekin dendaz denda, txikiak jostailu dendetan begiak iltzatu eta amari negarrez jostailuak eskatzen zizkion bitartean... Garai ederrak haiek, istripuak dena eraman zuen arte. Parkeetako arratsaldeak, frutaz koloreztaturiko otorduak, kasketak ekiditeko poltsikoetan ostenduriko limoizko hamaika goxoki...

*- Bide Berria diozu? Hori besterik ez genuen behar! Zuk ikusi zer egiten duzun...*

Oscar eta bere garratzasuna. Garbiñe ohituta zegoen biekkin bizitzen, baina zenbait unetan ez zuen ulertzen Oscarrek zergatik hartzen zuen hain gogor. Batzuetan zalantzan

jartzen zuen senarrak benetan maite zuenetz, eta ez ote zen berarekin haurdun geratu zelako soilik ezkondu. Gurasoek behartuta edo kontzientziak gauetako loa eragozten ziolako, akaso. Auskalo zergatik.

*-Erabakia hartua dago. Baiezkoa ematen badidate, ostiralean bertan hasiko naiz lanean.*

Esan eta izan. Martinaren ahotsa uste baino lehenago entzun zuen telefonoaren bestaldean Garbiñek, “*zu aukeratu zaitugu*” esanez. Amets txikiak batzuetan egia bihurtzen dira indar osoz irrikatuz gero. Horregatik, pozaren pozez jaso zuen notizia Garbiñek, Martinaren lagun aurki egingo zelako itxaropenez eta elkarteari berak eman ziezaiokeena baino askoz gehiago jasoko zuen esperantzaz. Apika, Martin ere, zegoen tokian zegoela, harro egon zatekeen amaz.

*“Egun on jaun-andreok. Ekainean gaude, eguraldi aparta iragarri digute Euskalmeteko gure lankideek eta temperaturek gora egingo omen dute hurrengo orduetan...”*. Askari gisa, esnetan bustitako gaileta pareta irentsi eta irratia amatatu du. Urbieta kalera abiatu da, zapata berriak estreinatzen dituen haurraren ilusio berberaz. Bere lehen eguna da eta urduri dago. Oscar, bazkalondoan, goizago joan da lanera eta ez du berarekin hitz egiteko paradarik izan. Ez paradarik eta ez gogorik. Halaber, etxea ohi baino hotzagoa geratu da Oscarrek alde egin duenean. Batzuen poza, beste batzuen tristura omen...

Martina kalean da, ahotik kea dariola, hatz arteko zigarroaren erruz lotsaz gorriturik. Badaki erretzea galarazita duela, baina berak atsegin du kontra eramatea, Gobernuaren eta sendagilearen debekuei, bereziki. *Patrizio mediku jaunak asko jakingo du tuberkulosiaz, baina hark ere ez dio muzinik egiten iganderoko habanoei gogoeta buruan.*

Garbiñe ez da erretzailea, baina erraz jasaten du zigarroaren kea. Horregatik, Martina zigarroa itzaltzeko eginahala egiten hasi denean, Garbiñek zigarrorik ez itzaltzeko keinua egin dio eta Martinak amore eman du bere ahaleginean.

*-Nirekin adina pazientzia izan beharko duzu hona etortzen diren hainbatekin ere...*

Garbiñek, halaz ere, ez die beldurrik ez larre zakarrei, ez erronka gaitzei. Horregatik, lehen momentutik papera hartu eta Martinari elkarteko kideen datuak eskatu dizkio, eta Martinak bakoitzaren profilarren berri eman dio.

*-Gehienek arazo psikologikoak dituzte eta horregatik jo dute elkartera; bizpahiru drogazale ditugu, anorexiaz jotako baten bat, errehabilitazio prozesuan dagoen alkoholiko talde bat eta tratu txarrak jasan dituzten bi emakume gazte. Zuri azken emakume hauekin lan egitea egokitu zaizu.*

Garbiñek disimulu osoz listua irentsi eta “arazorik ez” batez utzi dio galdera gehiago luzatzeari. Bat-batean, Arkoko Joana bailitzan sentitu da, Frantziako erregeari laguntza eskainiz egindako misio berean. Irene eta Maria; horiexek Garbiñeren hiru hilabeterako erronkak. Bata, goi mailako ikasketaduna; bestea, lehenengoagandik arras desberdina. Irenek zazpigarren bisita zuen elkartera egindako azkena; Mariak, aitzitik, aurki egingo du estreinakoa. Ez du inork ezagutzen —ezta Martinak ere—, hitzordua telefonoz eskatua duenez gero. Biak kasu zailak, inondik ere Garbiñerentzat.

*-Zu ez estutu, zerbait behar izanez gero, ondoan izango bainauzu ordu erdi barru Irene etortzen denean – Martinak Garbiñe lasaitzearren.*

*-Nola? Ordu erdi barru? –ikasi gabe azterketa bati aurre egin behar dionaren kezkaz.*

Martinak orduan ezpain arteko irri maleziatsua kanporatu du, ustekabean sarez harrapatutako usoa berenganatzen duen ehiztariaren moduan. Akabo bromak.

Arratsaldeko 18:30 dira, bero latza Donostiako kale bazterretan eta Garbiñe ordenagailu aurrean dago, Martinak txukuntzea agindutako artxibo zenbait berrikusten. Pantaila aurreko imajina guztiz lausotu zaio, ondo jantzitako emakume batek “*kaixo, Irene naiz*” esanez atea ireki eta bulegoa zeharkatu duenean. Luis Vuittonen etiketa ageri duen larruzko poltsa besotik dilindan; Cartier markako erloju garestia eskumuturrean. Inork gutxik esango luke dramarik bizi duenik etxean.

Garbiñek eseritzeko keinua egin dio, eta ordainetan irribarre batez erantzun dio emakume dotoreak gonbitari. Agurtzera etorri da eta elkarteak beragatik egindako guztia eskertzera. Asko hausnartutako erabakia hartu du eta ez dago atzera bueltarik: senarrarekin itzuli da. *Mila esker eta ondo segi*. Irteterakoan, Martinari ere muxu bat eman dio, senarraren aurkako salaketa kendu duela aitortuz. Martinak penaz agurtu du Irene, “*triste da, baina hurrengo jipoiarekin itzuliko da*” eginez bere kolkorako.

*-Irene galdu dugu, baina oraindik Maria salba dezakegu-* Martinak itxaropentsu.

Lehen egunerako nahiko ustekabe izan du Garbiñek eta Mariarekin hitzordua hurrengo egunerako utzi du. Martinari ondo iruditu zaio; Garbiñeren tripako minari ere bai, noski.

Urbietta kalea goibel dago, jenderik gabe, odolustuta. Oraindik ez du ilundu, baina kalean ez dago arima bakar bat ere. Garbiñe etsita atera da elkartetik, Irenekin gertatutakoa ikusirik. Badira arrazoiak ulertzen ez dituen bihotzaren hamaika kontu. Kontu korapilotsuak, osasunerako arriskutsuak, maitasunaren suntsitzaileak, tratu txarren modukoak, edo seme baten heriotzaren tankerakoak...

Etxeko atetik sartu eta okela usaina nabaritu du sukaldeko atearen zirrikitutik ihes egin nahian. Oscarrek afaria prestatu du, baina berarentzat bakarrik. *“Ez nekien noiz arraio itzultzeko asmoa zenuen eta...”*. Beste behin ere bakarrik afaldu beharko du Garbiñek, senarrak bere otordua egongelako besaulkian eserita telebista ikusiz egiten duen bitartean. Mila urte iraganda ere, Oscarrek ez dio Martinen heriotza sekula barkatuko. Ez dio sekula barkatuko telefono dei hari erantzuteagatik semea leihotik amiltzen utzi izana, Gurutze Gorrikoek *“Oscar, istripua izan da”* milioika bider errepikatuagatik. Badira hormen kontra alferrik talka egiten duten esaldiak, eta Garbiñek senarrari zuzendutakoak hala ziren Martin itzali zenez geroztik.

Bi aran eta baso bat urez hasi du eguna. Trago bakarraz irentsi du edalontziaren edukia, penak, pattarretan ez ezik, uretan ere ito daitezkeelakoan. Oscarrek ezkongaietan oparitu zizkion belarritakoak jantzi ditu Garbiñek, garai bateko une gozoak berreskuratuko nahian. Senarrak, ordea, beste behin ere goiz alde egin du lanera, Garbiñerekin topo ez egitearren.

Eguna nola edo hala pasa du; lagun bakarrarentzako bazkaria prestatuz, gauerako arraina erosiz... hitz gutxitan, txikikeriatan. Arratsaldeko 6ak direnean, aitzitik, sekulako misioa burutzerara dihoala iruditzen zaio Garbiñeri, munduak bere behar izugarria izango balu bezala, hain justu Garbiñe bera denean besteren laguntza oihu isilez eskatzen ari dena, bera jabetzen ez bada ere...

*-Lasaiago, Garbi?*

Martinaren galderari baiezkotz erantzun dio buruari eraginez, baina ezin du Irene pentsamendutik kendu. Auskalo nolako gaua pasa izango zuen. Agian, senarrarekin maitasuna egina izango zuen —Garbiñek Oscarrekin aspaldian ez bezala— edo apika, ospitaleren bateko larrialdi gelaren batean igarora izango zuen gaua, jarraian Ertzainei gertatutakoaren berri emanez. Edo, besterik gabe, senarrak agian ez zion eskurik gainean jarria izango ez onerako eta ez txarrerako, eta sekulako loa egina izango zuten biek...



Erantzunik gabeko gogoetetan murgilduta, ordenagailuari so baina ezer ere ikusteko gai ez dela, atearen bestaldeko emakume baten ahotsa entzun du. Martinarekin hizketan ari da eta negarrez dirudi. Garbiñe ez da ausartzen atea ireki eta zer geratzen den galdetzera, baina adi jarraitzen du elkarrizketa atearen bestaldetik. Bat-batean, negar misteriotsua eten egin da eta Martina zurbil sartu da Garbiñeren bulegoan.

*-Maria hemen da dagoeneko. Esan bezala, zure esku uzten dut. Badakit primeran egingo duzula.*

Garbiñe salduta sentitu da, korapilo baten erdian kateatuta balego bezala. Ez daki egoerari aurre nola arraio egingo dion, ezta Maria gajoa —gertatu zaiona gertatu zaiola— nola kontsolatuko duen ere. Denborarik galdu gabe, bada, atea zabaldu eta bere adineko neska beltzaran batekin egin du topo. Zapia hartuta aurpegia estalita dauka, masailetan behera amiltzen zaion malko errekarri eutsi ezinik. Garbiñek eskutik heldu eta berari jarraitzeko imintzioa egin dio, biak bulego barruan sartuz. Bulegoan sartu orduko, bihotzak eztanda egin dio Mariari... Garbiñeri ere bai.

Ezer ere galdetu gabe hasi zaio hizketan; urtebete izango zela Guatemala utzi eta bera eta Roman Donostiara etorri zirela bizitera, bi semeak Guatemalan utzi behar izan zituztela Donostiara ekartzeko dirurik ez zutelako, Romanek lan egiten zuen tabernako zerbitzari batekin harremanak zituela aitortu ziola eta Mariagandik banantzeko erabakia hartu zuela, tarteka mozkor-mozkor eginda etxeratzen zela bere buruaren jabe izan gabe...eta azkena: Maria ginekologoarenetik zetorrela eta berriz ere haurdun zegoela esana ziotela.

Entzundakoa entzunda, Garbiñeri arnasa estutzen hasi zaio, izerdia bizkarrean behera labaintzen, urdaila nahasten. Orduan, sentsazio hura bera iraganean bizi izan zuela konturatu da, hain justu Martin hil zenean. Semearen gorputz txikia, odoletan bustirik, patioan zerraldo;

Oscarren aurpegia Garbiñerenganako gorrotoz jantzia, kanposantuko krabelin zuriak haizearen erruz biluziak...

Mariak negar egiteari utzi dio eta lipar batez, bakarrik dagoela pentsatu du, Garbiñeren begirada galduaz jabetu denean. Eskua estutu eta Garbiñe berriz ere bere onera itzuli da, Mariaren harridurarako. Ez dute argi nork behar duen laguntza gehien, batak hala besteak. Ezustean, Garbiñeri begiak malkoz hezetu zaizkio eta Maria isilik geratu da, kontatu berri duen istorioak bere aurrean duen emakume ezezaguna guztiz hunkitu duela sinistuta. Garbiñe hitzik gabe geratu da, baina badu buruan bueltaka dabilkion galdera: boluntario lanak begiak ez ote dizkion ireki:

*-Barkaidazu, baina zuk ez ezik, neuk ere laguntza behar dudala konturatu naiz...*

Ate danbateko batek eman dio esaldi bukatugabeari amaiera. Martinaren mahai gainean “*Barkatu, ez nago ondo, egongo gara*” oharra uzteko denbora izan du, den den. “*Martinak ulertuko al du nire ihesaldia...*” kezkatu. Bihotzeko Urbieta kalea berriz ere eta pentsamenduan mila harrikada; jostailuak erakuslehoetan, Oscar, Irene eta bere Dior markako lurrin garestia, Mariaren ustekabeko haurdunaldia, frutak eta goxokiak, bihotzeko Martin kuttuna...

Oscar ez da etxean. Sobre itxi batean oharra salatari: “*Zoriontsu izan. Oscar*”. Lehen Martin, orain senarra. Ez du ez maleta, ez diru, ez Garbiñeren premiarik izan bidaiari ekiteko. Albistegian “*...berrogei urteko donostiarra zen, igerilari abila eta Gurutze Gorrian boluntario aritua orain urte batzuk...*”. Biek atsegin zuten boluntariora, parranda, irratia entzutea: “*...emaztea, burutik nahastuta, Arrasatera eraman dute...*”. Boluntariora, elkar laguntzea, herioaz gaindiko bizitza.

